

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko martxoak 13 III. urtea

Usurbil, 38. Zenbakia



**Behi esnearen
produkzioarekin
zer?**

Txerrimunik ordainetan



Juana Etxeberria Tolosa. San Jose biharamunean 90 urte beteko dituen honi: animo amona, mendea betetzeko hamar besterik ez dituzu falta eta! Muxu bero bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Egoitz Torregaray!** Datorren martxoaren 25ean 4 urte beteko ditugure etxeko txikiak; nola pasatzen den denbora! Muxu haundi bat, ama, aita eta Aitzolen partez.

Zorionak eta urte askoan. Martxoaren 11ean 5 urte bete zenituen **Christian Izagirre.** Zorionak guraso eta anai-arreben partez.



Joakina Alkorta Zabala, martxoaren 29an 52 urte beteko dituzula ez zaigu ahaztu, zer uste zenuen ba, haintzakotzat ez zintugula, hartuko edo? Etxekoen partetik muxu haundi bat. Urte askotarako!



Zorionak **Julen Otxagabia!** Martxoaren 18an 11 urte beteko dituk. Segi ezak betiko moduan ligoiarena egiten. Espabilatu hadi! Hire arreba Itziar.



Gogoratzen al zara martxoaren 20an 28 urte bete zenituen jasotako opariaz? Dagoeneko horrek ere bi dozena bete ditu. Zorionak bihotzez J. Mari eta Ainhoa Azpiroz. Etxekoak.

Aupa Ima! Martxoaren 11an 16 urte bete zenituelako etxekoak pozik gaude. Azkenean iritsi zaik gizontzeko garaia! Zorionak **Imanol Mujika!**



Sara Seguro. Martxoaren 14an betetzen dituzun urteak adina muxu. Zure seme Ibaia eta aitaren partez.



Zorionak "morenaza"! Gure koadrilako "amonak" 21 urte bete ditu. Jesoooo! Zure lagunak partez muxu bat "xudur punttan" Zorionak **Silvia Faz!**



Zorionak **Kristina Lizarza!** Martxoaren 25ean 2 urte beteko dituzunez, zorionak alde aurretik zure familiaren partez.

Tomas Gonzalez. Martxoaren 13an zure urtebetetze eguna dela ez dugu ahaztu. Zorionak bihotz bihotzez! Muxu haundi bat eta ondo pasa etxekoen partez.



Martxoaren 3an 19 urte bete zenituen **Gorka Karrera.** Segi ezak betiko moduan. Zorionak! Zure lagunak.



Zorionak **Luken Arkarazo!** 6 urte bete dituzu ja. Hori al da urtebetetzea ospatzeko itxura? Argi dago festa izugarria eratu zuela gure gizontxoak. Jarrai ezazu beti bezain alai eta bihurri. Etxekoak.



Garikoitz Alkorta. Gizon itxura hartzeko garaia bada. Zorionak 19 urte bete dituzulako. Zure lagunak.

Jaiotzak

Mikel Artola Balda
(1998-02-25)
Kalezar

Norbait zoriondu nahi baduzu hemen duzu aukera. Zure lagunak, gurasoak, seme-alabak, ezkonberriak, lizentziatuak... zoriondu ditzakezu eta xentimorik ordaindu gabe gainera! Argazkia, eta jarri nahi duzun testua, Noaua! Kultur Elkartera eraman edo bertako buzoian utz ditzakezu.

Zer irizten?

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua! Kultur Elkartea. Kale Nagusia, 37 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943) 36 03 21. e-mail: mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Nieves Aranburu, Luis Aranalde, Zaloa Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solabarrieta, Joseba Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga eta Begoña Arriaga. **Administrazioa:** Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino. **Erredakzio Kontseilua:** Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez. **Dokumentazioa:** Idoia Agirre. **Informatika:** Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker Muguruza.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola.

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818


Inprimategia: Antza,

Industrialdea 1 - 2, 20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

394
bazkide ditu Noaua!
Zu ere egin zaituz
bazkide

HUSTUBIDE GUZTIA ZIKINKERIAZ BETETA

Bada zerbait esateko garaia! Ezin geldituko gara beti ixilik. Behin eta berriz gertatutakoa aireartzeko garaia iritsi da. Izan ere, aurreko otsailaren 27an Atxegaldeko Bekokalea 6an dudan etxabera joatean ezoizko zerbait somatu nuen. Usain txarra, izugarritzko kiratsa zegoen, eta desaguetik ura ateratzen zen. Nire etxabearen gainean dauden etxeetako komunen hustubidea dagoenez, tapa altxatzera behartua aurkitu nintzen.

Hura ezustea! Hustubidea zikinkeriz lepo zegoen. Zer zen hura! Adreilu pusketak, landare lurra... zuloa mota guztietako zikinkeriz bete zegoen

argazkian ikus daitekeen hustubidea. Orain dela 3 urte ere garbitu beharrean aurkitu nintzen. Oraingoan ere berdin. Jendeak ez al daki txukun ibiltzen? Komunetik behera doan pasabidean adreilu pusketak eta lurra nola aurki daitezke? Garbiagoak izan zaitezte, mesedez. Gauza bakoitza bere lekura botatzea ez da ezer kostatzen.

Inaxio Gorriti



INAUTERIETAKO JAIALDIA

Udarregiko inauterietako jaialdia dela eta, gure desadostasuna agertu nahi genuke. Izan ere, urte honetan ikasleen lotsa eta leku eta antolaketa arazoak direla eta ateak itxi dizkigute. Orain arte inauterietako ostirala iritsi eta gure ilusio bakarra Udarregiko jaialdia ikustea izan da, baina aurten sartzea lortu badugu ere bidali egin gaituzte. Honekin batera, ikasleei guk ere "lotsa" pasa dugula adierazi nahi genieke eta irakasleei, berriz, nahi izanez gero, bai kiroldegia, bai ikastolako frontoiak libre dituztela beraien toki falta hori asetzeko. Besterik gabe, hurrengo urtean Udarregiko ateak irekita edukiko ditugulakoan agurtzen gara.

Udarregiko ikasle ohiak

OHARRA: Hika mikan, izen-abizenez sinatu gabeko esku-titza argitaratu nahi denean, kazetariak nork idatzi duen jakin behar du.

xirrikitutik




Norbaitzuk bazterrak zikintzen ibili dira Aginaga aldean. Joan den martxoaren 2an Sariakolako autobus geltokiko etxolan "puta ETA" jarri zuten eta udalaren panel batean, "Eman bide euskarari" pintura beltzez ezabatu zuten. Aurreko egunean Guardia Zibilaren kontrola omen zegoen...

Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

txaro artze
ILEAPAINDEGI

Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85



Mari Jose Lopez

Bizitza osoa Santuenean bizi izan ondoren, abenduan Atxegalderako bidea hartu zuen 22 urteko neska honek. Gurasoak erdaldunak baditu ere, berak oso ongi egiten du euskaraz. Gaur egun, bere mutil- lagunarekin batera, Txurru tabernaren jabea da.



Nolatan hasi zinen ikastolan ikasten?

Hasiera-hasieratik, nire gurasoek Udarregi ikastolara eraman ninduten. Kalezarko goiko eskolaurrean, Ugarte aurreko ikastolan, Udarregi zaharra eta berrian, lau toki ezberdinetan ibilia naiz ni. Garai hartan ikastolan erdaraz are ematen ziren klaseak, eta erdarazko klasen ibiltzen nintzen ni.

Orduan hasi zinen euskaraz ikasten?

Nik euskaraz hitz egiten ikastolan ikasi nuen. Irakasgaiak erdaraz ematen genituen, ez zen oraingo moduan, dena euskaraz ematen. Euskarako klasean bakarrik egiten genuen euskaraz.

Irakasgai guztiak euskaraz ere eman omen zenituzten

Zazpigarren mailan irakasgai guztiak euskaraz eman genituen, baina saiakera ez zen ongi ateratu. Guztia erdaraz ematek guztia euskaraz ematera pasatzea aldaketa haundiegia izan zen. Horregatik, zortzigarren mailan aurreko sistemara itzuli ginen.

Orduan ikastolan ez zenuen euskaraz hitz egiten ikasiko.

Bai, noski. Euskara irakasgaia hainbeste urtetan eman eta gero euskaraz hitz egiteko gai banintzen.

Euskaltegian ere ibilia zara.

Hiru urtetan ibili naiz Etumeta euskaltegian. Euskaraz ikasi, zerbait ikasi dut, baina besteengana irekitzen lagundu dit. Lehen euskaraz hitz egiten banekien, eta gai nintzen. Hala ere, asko kosta zitzaidan. Urduri jartzen nintzen euskaraz hitz egiterakoan.

Euskaraz hitz egitea zaila egiten zaizu?

Orain ja ez. Hastea kostatzen zait, baina behin hasten naizenean ez dut zailtasunik aurkitzen.

Zer moduz Txurru tabernan?

Ongi, oraingoz oso ongi. 1997ko urriaren 24an ireki genuen eta bost hilabete hauetan gustora gabilta.

Lehen tabernan lan egindakoa zara?

Karobi tabernan egon nintzen hilabete eta erdiz, oso denbora gutxi. Orain egunero gauza berriak ikasten ditugu. Taberna hartu genuenean "printziantek" ginen eta orain piskanaka-piskanaka esperientzia hartzen goaz.

Inoren laguntzarik gabe?

Beste tabernariak asko lagundu digute. Horretan ez dugu inongo arazorik izan. Orain, sei hilabetero antzerki edo antzeko zerbait antolatu nahi dugu.

Barra barrutik beste era batera ikusten dira gauzak?

Baietz uste dut. Barra barruan zaudenean gauza gehiagotaz jabetzen zara. Jendea askoz hobeto ezagutzen duzu. Tabernari eta bezeroaren artean harreman zuzena dago eta biok bakarrik gaudenean adibidez, hitz egiten hasi eta konfidantza hartzen zoaz.

Zer edari edaten da gehien Txurru tabernan?

Kalimotxoa eta garagardoa. Asteburuetan konbinatuak ere bai, baina bi edari horiek eskatzen ditu gehien jendeak. Orain "koktel" desberdineki probak egiten ari gara. Hauek probatu, onak diren edo ez ikusi eta datozen hilabeteetan jendeak hori eskatzea nahi genuke.

TABERNA
BAZKARIAK
ETA AFARIA
Santuenea
Tlf. 36 27



TABERNA



**7 t'erdietan
irekitzen dugu**

Goiz goizetik
gosariak

Irazu kalea,12
Tlf: 36 02 17

ANDONI

PINTURAK

Barnelantako
Especializatua

Itxasku-Berri etxea Tel: 36 13 18
Usurbil Mobila: 939 70 08 67

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Frontoi berriko mugimendu etengabea

Udaberrian sartzera goaz laister. Negu eguraldirik gabeko negu honen ondoren zer etorriko den jakitea ez da erraza izango. Negu, beroa, sargoria izan dugu aurtengoa. Hotzik egin al du ba? Udaberrian elurra egiten badakiela esan ohi dute batzuk. Aurten ere, agian tokatuko da zerbait.

Eguraldi bikaina, bai, pelota edo palan ibiltzeko. Eta batez ere, Txokoaldeko frontoi eraberrituan. Azken asteetan jende ugari dabil gure frontoian. Leku lasai-lasaian pala eta pelota hartu eta hor ari-

tzen dira jo eta ke frontoiko lurra izerdiz busti arte. Usurbilgo jendea, bertakoa... frontoi berriak arrakasta izan duela dirudi. Zaharrear ere ibiltzen zen jendea, bai, baina frontoiaren orduko egoera eta oraingoa ezin da konparatu.

Bestalde, erreka bideratzeko lanak aurrera darraite. Beheraino inoiz ez zirela iritsiko uste bage-nuen ere Oria ibaitik gertuen dauden etxe ondoan ari dira lanean. Euri jasa handia

egiten badu, goitik-behera, zailtasunik gabe joango da ura Oria ibaira. Lehen lurrazpitik zetorrena, orain agerian joango da, baina askoz leku gehiagorekin.



KALEBERRI

Joxe Torregaray



Bide kontuak gora eta behera

Garai batetik hona Usurbilek majina bat aldaketa izan ditu, haundiak benetan. Batetik frontoia dela, bestetik etxebizitza berriak... eta batez ere bide ugari. Herri gutxi izango dira Usurbil adina bide egin eta berritzen dituen, baserrietakoak, herri mugetakoak... Baina oraindik badago nahikoa lana horiei kontu egiten. Iazko euriteek kamio eta terreno asko hondatu baitzikigute, eta zaila da denetara batera iristea.

Gogoratzen naiz, duela urte asko bide txarra zela eta kotxe bat bidetik atera zenekoa. Jendea beldurtuta korrika joan zen istripua gertatu

zen tokira eta gidariari galdetu zioten ea zer gertatu zen:

-Ez dakit, ni ere oraintxe iritsi naiz eta-erantzun omen zuen harek.



Hala ere, ez dut uste Usurbilen egoera hainbesteari-nokoa denik, kaxko inguruko bideak asko ari baitira hobetzen. Hala ere, bideak bai baina faltan nabarmentzen dudana oraindik kotxeentzako aparkalekua da, egun batzuetan espaloi gainetan edota zebra-bideetan ikusten baititugu.

Bestetik, jubilatuek laister edukiko dugu etxe berria eta aurrekoa baino haundiagoa izango da behintzat, zaharrear kabituz ezinik bukatu baike-nuen. Jendea behintzat zain eta kontentua dago inaugurazioari itxaroten. Lehenbailehen iritsi dadila!

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Suak momentu larriak ekarri zituen

Aurrekoa nahikoa aste zala-partatsua izan da Atxegalden. Alde batetik Aristitxo kalea hankaz gora jarri dute hainbat "makinatzarrek", hasi baitira gure auzoaren azpiegitura berritzeko lanak. Baina asteko berria ostiralean, martxoaren 6an gertatu zen. Egurdiko hamabiak aldera Alkortatarren harategi parean auzoko baten furgonetak sua hartu baitzuen.

Hasiera batean estintore batzuekin sua itzaltzen saiatu baziren ere, ez zen erraza izan sua kontrolatzea. Momentu batean ondoko etxebizitza zein kotxeak arriskuan zeudela

eta, furgoneta bide erdira atzeratzea lortu zuten udaletxeko langileek auzotar batzuen laguntzaz. Ureztaketa hartunea bilatzeko zenbait arazo izan zituzten. Goiz hartan Atxegalde guztian ura moztuta egoteak ere ez zituen gauzak erraztu. 12:30ak aldera suhiltzaileak etorri ziren arren, ordurako udaletxeko langileek sua kontrolpean zutela esan behar.

Badirudi sutearen arrazoa furgonetaren motorrean sortu zen kortozirkuitu bat izan zela. Bizitzaren paradoxak! Atxegalden goiz hartan urik ez zegoen, ez hortzak garbi-

tzeko ezta sutan zegoen furgoneta itzaltzeko ere! Azpimarratu beharra dago herriko langileen azkartasuna eta erreakzio gaitasuna.

Azkenaldian gure herrian argi geratu da ura eta sua ez direla etsai makalak.



KALEZAR

Joseba Pellejero



Zenbat maila izango ditu eskilara berriak?

Kalezarko eskilarak ez dira lehenago berdinak izango. Hainbeste urtetan ikuitu gabe egon diren eskilarak, kalezarko gauza berezitat genuen, baina hemendik aurrera ez da berdina izango.

Hilabetea pasa da hauek berritzen hasi zirenetik eta orain ere dabilta, gora eta behera kalezartarroi etxerako bidea erraztu asmoz. Negu honetan euri askorik ez du egin, ez, bazen, ordea, eskilara irristakor hoietan erortzeko arrisku etengabea.

Hemendik aurrera, dena desberdina izango da. Eskilara zaharreko maila okerrak zuzen-

ak izango dira orain, eta maila txiki eta estuak zirenak, zabalak eta hanka jartzeko nahikoa tokikoak izango dira konponketa honen ondorioz.

Noaua! aldizkarirako datoren alerako galdera izan daiitekeena ere badut nik.

Eskilara zaharrrak 141 maila zituen. Zenbat izango ote ditu berriak?

Eskilaretan gora igo, kalezarko kaxkoa atzean utzi eta Entzarrain alde-

ra buelta bat ematera nindonean hara zer aurkitu dudan. Artxubietako bidea hartu baino lehenago dagoen bihurtunea konpontzen ari ziren. Badakizue, uholdeek eragin zutena konpontzen.



SANTUENEA

Alfontso Vidal

Zorrotzako zubitik Baqueira Beretera

Santueneako zubian oinezkoen pasabidea egin behar dutela badakigu. Laister hasiko dira lanean eta horretarako zubia itxi beharko dutela pentsatzen dut. Nola pasako gara orduan



Santuenera? Modu egoki bat antolatu beharko dute, bestela, etxera joateko buelta haundiegia eman behar baita. Txokoaldetik erriberan barrena, Urdaigatik behera edo Zubietatik joan beharko genuke gure auzo-
ra. Ea ba lanak azkar hasi eta azkarrago amaitzen dituzten.

Zubiaren ondoan jarraituz, Oria ibaiaren albotik paseatzeko aukera izan dezakegu laister. Usurbildik gatzozela, zubiaren


eskuin aldetik, ibai ertzetik joatea ezinezkoa da orain. Ingemarrek itxitura jarri zuen, sare bat, eta pasabidea itxi egin zuen. Orain, dirudienez, Ingemarrek itxitura hori kentzeko konpromezua hartu du. Hortik pasatzeko ibai bazter hori garbitzea beharrezkoa izango da, sasiz betea egongo baita ja.

Kronika amaitu aurretik Baqueira Bereterako bidea hartzea izango da onena, auzoko zenbait han izan baitira eskiatzen. Odol urdinekoren bat ere ikusi omen zuten otsailaren 28an eta martxoaren 1ean.

URDAIAGA

Gure auzoa udarara begira jarri da ja. Neguaren ondoren dator udaberria eta udara ere ohartu gabe gainen izango dugu. Horretarako, Leizakalde inguruan udalak

zenbait lan egin behar dituela zabaldu zen (komunak etab.). Honek jendea gure txoko honetara erakarriko du



AGINAGA



ZUBIETA

H erorrek esan



Jesus Zubimendi Erdozia

Eguzkitza

Nik esne gutxi edaten dut, eta edaten dudanean dendakoa. Lehen, bai, baserrikoa edaten nuen, baina emazteak dendako esnea ekartzen duenez...



Karmele Arruti Arregi

Atxegalde

Dendan saltzen duten esnea edaten badut ere, nahiago dut baserriko esnea. Baserrian bizi ginenean bertako esnea edaten nuen. Orain, berriz, dendan hamabi tetrabikeko kaxa erostea errazagoa da.



Joxe Miel Begiristain Irazusta

Urdaiaga

Nik dendan erositako esnerik ez dut edaten. Baserrian bizi naiz eta guk beti baserriko esnea edaten dugu. Dударik ez dago, baserriko esnea askoz hobea da.



M^o Dolores Salsamendi Lizaso

Aginaga

Medikuak baserriko esnea edatea galarazi zidatenetik tetrabikeko esnea edaten dut. Badakit baserriko esnea hobea dela, baina orain ezingo nuke tetrabikeko esnea ez den beste esnerik edan.



Araceli Esteban Divas

Santuenea

Tetrabikeko esnea edaten dut orain. Lehen gaztetan baserrikoa edaten nuen baina haurdun gelditu nintzenean baserriko esnea edatea debekatu zidaten. Dirudienez grasa gehiegi du baserrikoak.



Joseba Loidi Rezola

Atxegalde

Lehen baserri-tarra etxera etortzen zen esnearekin. Honek etortzeari utzi zionean, baserriko esnea alde batera utzi eta tetrabikeko esnea edaten hasi ginen. Orain ere horrela jarraitzen dugu, nahiz eta nik oso esne gutxi edan.



Garbiñe Sarasua Aizpurua

Kalezar

Baserriko esnea edateari orain dela 10 urte utzi nion. Umea izaterakoan baserrikoa ez edateko esan zidaten eta orain, horrenbeste denboraren ondoren, eta esne desnatatua edatearen poderioz, ezin dut baserriko esnea edan.



Juan Luis Atxega Pagola

Urdaiaga

Aspaldi honetan dendan erositako esnea edaten dut. Lehen baserrikoa edaten nuen, baina baserrian esnerik ez dugunetik dendakoa edaten dugu. Hala ere, baserriko esnea hobea da, dudarik gabe.

BORDATXO
EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

MAHUKA



GAZTE DENDA
Udaberriko m
berria zuret

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10 Usurbil 37 00 08

Behin betiko baietza Eroski hipermerkatuari

Eroskik Asteasuaingo lurretan hipermerkatua eraikiko du azkenean. Arazoz betetako prozesu luze baten ondoren Eusko Jaurlaritzako komertzio sailak lurren kalifikazio aldaketa onartu du. Beraz, udalak, Eroskik eman beharreko diru sarrera garrantzitsua (1998ko aurrekontuetan azaltzen ez dena) jasoko du.

Eroskik Asteasuainen jarri nahi zuen hipermerkatuaren eraikuntza zalantzan egon da azken 6 hilabeteetan. Industriadako lurak izatetik komertziorako lurak izatera pasatzeko pausoak, oztopo ugari izan ditu. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako komertzio sailak lurren kalifikazio aldaketa ontzat eman ondoren, argia ikusi du tunel beltz honek.

Eroski hipermerkatua hasieran aurreikusita zegoena baino txikiagoa izango da. Salmentarako, 12.000 m² izan behar zituen hasiera batean, hala ere, komertzio sailak hala



erabaki duelako, 10.000 m² inguru izango ditu, 9980 m² hain zuzen ere.

Eroskik Asteasuainen jarri behar duen hipermerkatuak argia ikusi duen modura, gauza bera esan daiteke hilerri berriaz. Eroskik udalari emango dion diru kopuruari esker hilerri berria egiteko pausoak emango dira epe laburrean. 1998. urteko aurrekontuan aurreikusita ez zegoen

diru-sarrera honekin hilerri berriaren eraikuntza finantzatu da. Udalak guztira 200.000.000 pezeta inguru jasoko ditu lurren kalifikazio aldaketa onartu eta Eroskik hipermerkatua eraikitzen duen bitarte horretan. Kalifikazio aldaketagatik 43.810.000 pezeta jasoko ditu eta Eroskik Lasarteko lurak bereganatzaren plusbaliak direla eta, 30.000.000 pezeta inguru.

ZAHARREN EGOITZA BERRIA

Zaharren egoitza berria apirila aldean inauguratuko da. Lehen anbulategia izandakotan azken lanak egiten ari dira eta maiatzerako amaituta egongo dira azken hilabeteetan egindako lanak. Orain, taberna nork hartuko duen jakitea besterik ez da falta. Izan ere, tabernaren ustiaketa konkurtsora atera berri du udalak.

ALKATEAREN EPAIKETA

Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzeko hartu zuen erabaki dela eta, otsailaren 26an, **Joxe Antonio Altuna**, herriko alkatearen kontrako epaiketa hasi zen. **Aitor Garin**, hasierako bere abokatuak, ez zuen itzultailerik onartu eta Begoña Argal epaileak abokatu berria izendatzeko hiru eguneko epea eman zion. **Jaione Karrikiri** izango da bere abokatuak.

ATXEGA JAUREGIA

Martxoaren 17an, udalean pleno berezia egingo da. Bertan mahai gainean izango diren hiru gaietako batean, Atxega jauregia ustiatzeko-lehiaketaren oinarriak onartuko dira. Orain arte, Atxega jauregia errentan hartzeko bidea enkantea izan bada ere, orain lehiaketa bidez erabakiko da nork ustiatuko duen Atxega jauregia.

TABERNA
JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL



Igandetean ganba-ziri mundialak!



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Joxe Goenaga Olarri baserriko nagusietako bat dugu. Soldaduska egin zuenean lantegirren batean lan egiteko aukera izan zuen, baina baserrian lan egitea erabaki zuen. Gaur egun Olarri baserriko bi bazkideetako bat da eta ondo baino hobeto menderatzen ditu baserri lanen nondik norakoak.

Guk, esne produkzioaz galdetu diogu. Izan ere, Olarri baserrian aspaldidanik produzitu izan da behi esnea. Lehen, enpresei saltzeaz gain, Arantxa Goenaga, bere aizpak etxez etxe saltzen zuen esnea. Garai haiek joan ziren eta egoera berri baten aurrean gaudela esaten du Joxek.

Gaur egun guztira 75 esne behi inguru dituzte Olarri baserrian, inoiz baino gehiago. Egunean 1300 litro esne ekoizten dute Olarriko behiek. Zer egiten dute esne honekin? "Iparlati saldu ez behintzat. Hauek oso diru gutxi ematen dute, eta atzeratuta gainera. Gaur egun litroko 42-43 pezeta ordaintzen du enpresa honek eta hori, guretzat, oso gutxi da. Santander aldean adibidez, enpresa berak 53-54 pezeta ordaintzen die hango baserritarrei. Eta guri zer? Inon baino gutxiago, hau lotsagarria da". Joxe Goenagaren esanetan Iparlat eta Copelecek bat egin zutenean asko okertu dira gauzak hemengo baserritarrentzat.

"Euskararen egoera ez da normalizatu ez Usurbilen ezta Euskal Herrian ere" N. Bengoetxea

“Nahiz eta gazte
gehienek euskaraz
jakin, Usurbilgo gaz-
teen artean erdara
asko erabiltzen da”

J. Rueda

Zumarteko korua Antigua abesbatzen lehiaketan

Zumarte musika eskolako abesbatzak "Antigua abesbatzak" koralen lehiaketan parte hartu zuen joan den martxoaren 1ean Zumarragako Antigua Ermitan. Euskal Herri mailako abesbatzek parte hartzen duten lehiaketa garrantzitsu honetan abesteko aukeratu zituzten Billabonako Eresargi txiki eta Gasteizko Samaniego abesbatzekin batera. Azkenean ezin izan zuten lehen postua eskuratu, Billabonatarrek baitzuten gazteen abesbatzen lehiaketa hau. Bigarren eta hirugarren postuetan zein gelditu ziren jakinarazi ez bazuten ere, 6 eta 16 urte bitarteko gazteek osatzen duten Usurbilgo abesbatzari, entzulegoak bigarren puntuaziorik onena eman zion.



Sua Etxealdiako 4. zenbakian



Etxealdiako San Esteban kaleko 12. zenbakian sutea izan zen joan den otsailaren 28an. Sua, hirugarren pisuko etxe batean hasi zen. Bertako bizilagunak ohean zeuden bitartean, goizeko 7.15ak aldera sua piztu zen sarreraren alboan dagoen gela batean. Dirudienez, argindarraren instalaziotik sortu zen sua. Pisuko bizilagunek adierazi dutenez, gela hori ez omen zuten erabiltzen, "argindarra bazegoen baina argirik ez". Gela horretatik sarrerara eta sukaldera zabaldu zen sua. Azkenean, gela hori erabat kiskalita gelditu zen eta sarrerako ateak eta sukaldeko sabaia ere erre ziren. 12. zenbaki honetan une larriak bizi izan zituzten. Keak hartu zuen ia etxe osoa eta leiho batetik salto egin zuenik ere izan zen.

Arrantza denboraldiaren txanda

Martxoaren 15ean zabalduko da arrantza denboraldia. Oria ibaian, Usurbil parean, ordea, ezin da arrainik harrapatu. Eusko Jaurlaritzak G.A.On argitaratutakoaren arabera Ingemarko presa arte arrantza egin daiteke, baina ondoren, harrapatutako arrain guztiak ibaira itzuli behar dituzte arrantzaleek. Beste ibai edo erreketan, izokinak harrapatzeko aukera izango da datorren uztailaren 20a bitartean eta amurrainen arrantzan aritzeko epea abuztuaren 31 arte luzatuko da.



BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2
Tlf. 36 40 58

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Zumartegi industrialdea
Aitzearra kalea, 4



Aparkalekua


Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

USURBIL Tel.: 36 60 49

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA



Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

LAPURRETAK USURBILEN

Laurok eta Orkoi zapata dendak lapurren bisita jaso zuten den martxoaren 3an. Gauean bi dendako erakusleihoak hautsi zituzten lapurreta egiteko. Orkoin barnera sartu eta zenbait oinetako lapurtu zituzten. Lauroken, berriz, erakusleihoan zeuden erloju eta beste zenbait gauza eraman zituzten. Ertzaintzak, Lasarten harrapatu zuen lapurretako bat. Lapurreta burutu zutenak Barakaldoko 18-23 urteko lau gazte izan ziren



Emakumeek beren eguna ospatu zuten martxoaren 8an. Ospakizunak, aldiz, aurreko egunean hasi ziren. Izan ere, "egin dezakegu" (We Can Do It) lemapean Ugarte jatetxean bildu ziren Usurbilgo hainbat emakume. Guztiek elkarrekin afaldun ondoren, goizeko ordu txikiak iritsi ziren arte festa giro alai eta atseginaz gozatu ahal izan zuten. Hurrengo egunean, beraien egunean, elkarrekin bazkaltzera animatu ziren emakumeak ere ez ziren gutxi izan.

LOTERIA NAZIONALA

Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa... loteria-ren zati txiki bat bada ere diru soinuarekin esnatu zen Lasarte joan den otsailaren 28an. Baina ez Lasarte baka- rrik, Usurbila ere etorri zen otsailaren 28ko loteria nazionalaren zati txiki bat. Atxegaldeko emakume batek Lasartetik 500 pezetako dezimo bat hartu zuen Atxegalden biltzen diren emakumeen artean banatzeko. Baita tokatu ere. Nahiz eta batzuei gehiago toka- tu, gehienek Milioi t´erdi pezeta jasoko dute.



Martxoaren 9an izan zen urteko bigarren odol emanaldia. Usurbilgo Odol Emaileen Elkarte- ak deituta 65 pertsona inguratu ziren anbulategira odola eman asmoz. Guztira 26 litro odol bildu ziren. Urte honetako lehenengo emanaldian uste baino pertsona gutxiagok eman zuten odola, 47k, baina bigarren emanaldi honetan asko igo da kopuru hori. Odol emalea berri bat ere bazegoela kontutan hartuta, odol emaleen elkartekoak gustora zeuden.



Ikasle Abertzaleak taldearen Herri Eskola Nazionala joan den otsailaren 27tik martxoaren 1era Usurbilen izan genuen. Euskal Herri osoko txoko askotatik etorrita, gazte ugari hurbildu zen Usurbila. Agerialden hartu zuten ostatu eta egun osoan zehar hainbat ekitaldi eta jardunaldi burutu zituzten. Jardunaldi hauekin batera, otsailaren 28an, gauean, Morau kantautoreak kontzertua eskaini zuen Udarregi zaharrean.

xabier
edaritegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

TXURRUT
EDARITEGIA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 36 00 80

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Juan Joxe Olano plater tiraketetan nagusi

Juan Joxe Olano plater tiraketako Gipuzkoako txapeldun izendatuko dute datorren martxoaren 14an. Mini foso eta foso unibertsal tiraketa motetan, 1997. urteko txapelketetan lehenengo postua eskuratu du aurten. Ez da txapelketa hau eskuratzen duen lehenengo aldia. Iaz ere mini fosoko txapeldun izan zen.

Isil-isilik Gipuzkoako txapeldun zaitugu.

Oraindik ez. Martxoaren 14an foso olinpiko eta foso unibertsaleko txapeldun izendatuko naute Txitxardin Beltzean egingo den afarian. Eskutitz bat iritsi zitzaidan bi modalitate horietan txapeldun nintzela eta afarira joateko esanez.

Ez zenuen espero beraz..

Espero, beti izaten da esperantzaren bat. Izan ere, urtean zehar hainbat herritako plater tiraketetan parte hartu dut. Hernanin eta Olaberrin lehenengo postuak lortu nituen eta beste tiraketa askotan bigarren eta hirugarren postuak lortu izan ditut. Gehienetan lehenengo bost postuetan gelditu izan naiz.

Garaipen horiengatik zara Gipuzkoako txapeldun?

Ez garaipenengatik, Gipuzkoako txapelduna aukeratzeko erregulartasunari begiratzen diote. 10-12 tirada onenak hartu eta hautsitako plateren kopurua batzen dute. Plater

gehien hautsi dituen izaten da Gipuzkoako txapeldun. Larunbatean esango didate botatuko plateretatik zenbat hautsi nituen.

Punta-puntan zabiltzala esan nahi duzu?

Plater tiraketetan lau maila daude eta goreneko mailan nago, lehen mailan. Hiru urte daramatzat maila honetan. Iaz mini fosen Gipuzkoako txapeldun izan nintzen. Aurten, berriz, modalitate horretan eta foso unibertsalean lortu dut lehen postua.

Zer moduz ibiltzen zara foso olinpikoko tiradetan.

Modalitaterik zailena da hau, baina nahiko ongi moldatzen naiz. Hemen ibiltzeko asko entrenatu behar da, eta nik ezin dut. Ni ez naiz "Ringo" bezala foso olinpikoan betebetearen aritzen. Hala ere parte-

hartu izan dudana txapelketetan puntan ibili izan naiz. Unibertsala eta mini foso erabat utzi gabe foso olinpikoan gehiago aritzeko asmoa dut aurten.

Foso olinpikorako entrenatzen hasi zara?

Bai, entrenatzen hasia naiz ja. Horretan gogo piskat gehiago jarri, serioago hartu eta ea punta-puntan ibiltzen naizen.

Ringori irabazteko prest orduan?

Behin edo behin irabazi izan diot, baina berak askoz ere erregulartasun haundiagoa du.

Zein da zure errekorra?

Zaragozan, orain dela 2 urte 153tik 147 hautsi nituen. Entrenamendutan 100etik 99, 100etik 98 egin izan ditut.

Josu Aranberri.



P A T R I

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA


Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

PORTULARRUME



ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK



Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99

Judo eta Sambon Euskadiko txapelkun

Berandu bada ere zorionik beroenak herriko judokei. Izan ere judo taldeko kideek domina ugari lortu zituzten otsailean jokatu ziren judo eta samboko Euskadiko txapelketetan.

Judon zazpi domina lortu zituzten juniorretan. Anartz Aizpurua, Iñigo Goikoetxea, Josu Arruti, Gaizka Maiz, Vanesa Guevara, Telmo Cancio eta Xabier Azurmendi izan ziren Euskadiko judo txapelketan dominak lepoan jantzi zituztenak.

Sambon, aldiz, domina gehiago lortu zituzten Euskadiko senior

txapelketan, hamar hain zuzen ere. Xabier Heras, Alvaro Mendi-za-bal, Erika Guevara eta Maria Jose Sardenek urrezko dominak eskuratu zituzten. Anartz Aizpurua, Ibai Peña, Xabier Urkizu, Gaizka Maiz, Vanesa Guevara eta Garazi Goikoetxeak, aldiz, zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuten.

Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan bost domina ekarri zituzten Usurbila. Urrea Iraitz Araolazak, zilarra Ainire Goikoetxeak eta brontzea Alain Arriola, Sergio Montes eta Eneko Iturriozek.



Baqueira Bereteko errege-erreginak

Baqueira Bereten eskiatzen ibili ziren joan den otsailaren 28 eta martxoaren 1ean hainbat eta hainbat usurbildar. Usurbilen eskiatzaile (edo sasieskiatzaile) ugari dagoela argi gelditu da Andatza Kirol Kultur elkarteak antolatu duen irteera honetan. Guztira 85 pertsona

izan ziren bi autobusetan Lleidako eski estazio garrantzitsu horretara joan zirenak. Eguraldi bikaina lagun, Tomba eta Conpagnoni baino jeitsiera azkarragoak egin zituztela entzun da herrian. Hori bai, odol urdinekoak ikusi zituztenaren zurrumurrua ere iritsi da.

EMAITZAK

FUTBOLA

Otsailak 28-martxoak 1

Boskozaleak **1** - Usurbil F.T **0** (2.R.)
Gazteak **2** - Usurbil F.T **4** (ju.)
Usurbil F.T. **0** - San Ignacio **0** (n.)
Orioko **5** - Usurbil F.T **2** (ka.)

Martxoak 7-8

Usurbil F.T **2** - Elgoibar **2** (2.R.)
Usurbil F.T **2** - Amaiak bat **4** (ju.)
Zarautz **2** - Usurbil F.T **0** (n.)
Usurbil F.T **5** - Zumaiako **2** (ka.)

ESKUBALOIA

Otsailak 28-martxoak 1

Deusto **27** - Usurbil **30** (2.N.)
Usurbil **19** - Ereintza **30** (ju.m)
Usurbil **18** - Ereintza **22** (ka.m)
Leizaran **15** - Usurbil **15** (ju.n)

Martxoak 7-8

Usurbil **33** - Egia **34** (2.N.)
Elgoibar **20** - Usurbil **17** (ju.m)
Elgoibar **19** - Usurbil **27** (ka.m)

SASKIBALOIA

Usurbil S.T **27** - Niessen **99**
Alde Zaharra **56** - Usurbil S.T **27**

ARETO FUTBOLA

Xabier Edar. **6** - Umore ona **2**
Xabier Edar. **3** - Past. Adarra **3**

PELOTA

Joko Garbiko Gipuzkoako tx.

Billabona I **40**
Zubieta I (Aizpurua anaiak) **24**

Laburdurak

R.: errejionalak ka.: kadeteak
N.: nazionala n.: neskak
ju.: jubenila m.: mutilak

T R U K E

R JANTZIAK

U Udaberriko
K moda berria
E arropa berriarekin

Erdiko kalea, 2
Tel:37 34 81



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97

Zeri ari zara
itxaroten?

Egin zaitez
Noaua!ko
bazkide!

“Iron City” berria



Aitziber Elortza
Mendizabal

A. Elortza

- 24 urte
- Kaleberrikoa
- Arte ederretan lizentziatua
- Iruñako San Fermin Ikastolan ari da lanean



E.E.B.B.-n aurkitzen dugun Pittsburg hiriarri jarraitu nahi dio Bilbok Guggenheim eta antzeko inbertsio erraldoiekin. Duela 50 bat urte, Pittsburg siderurgia eta metalurgiaren hiria zen; “Iron City”. Gaur egun zeharo eraldatuta dago metalurgiaren krisian sartu zenetik. Burdina eta metalaren mundua utzi eta turismoan, hirugarren sektorean dihardute lanean eta ondorioz hiriaren itxura aldaketa ere nabaria da.

Bilbok ere eraldaketa beharra duela garbi dago. Berri zehatzik jakin ez arren, metalgintzaren munduan jarraitzeak ez dirudi irtenbiderik proposena denik halako hiri batentzat.

Jakin badakigu, dagoeneko, Bilbo eta batez ere bere ibai ertza berritzeko proiektua ere garatuz doala pixkanaka. Izan ere, herri-hiritarrok arlo horretan ez dugu izan parte hartzeko posibilitate handiegirik, baina dagoeneko eman dituzte pauso garrantzitsuak. Hauen artean, Euskalduna kongresu jauregia (oraindik eraikitzen ari direna) eta batez ere Guggenheim famatua, dagoeneko hiri narrats baten erdian aurki dezakegun erakuntza berritzailea.

Proiektu hauen berri zehatzak, berauek eraiki ondoren zabaldu dituzte komunikabideen bitartez. Guggenheim-en kasuan ikus dezakegu hau. Eraiki bitartean ez da izan honi buruzko ia ezarren berri. Ez herritarrok ezta zuzenki lotuta agertzen zaizkigun arte munduan mugitzen diren herritarrek ere. Berau eraikia izan den arte, noski.

Bitartean hainbat hausnarketa egin dira, bilera eta eztabaida sortu dira arte munduan mugitzen direnen arte-

an. Zerbait bazetorrela jakina zen. Baina honen ondorioak zeintzuk izango ziren aztertu gabe zegoen oraindik.

Proiektu arin bat izan balitz ez lego ke arazorik. Baina, Bilbo eraldatzeaz gain, Euskal Herriko artearen munduan aztarna ikaragarria utziko lukeen proiektu erraldoi bat dela kontutan hartu beharra zegoen Guggenheim eraikitzerakoan.

Hain zuzen ere hor datza gakoa. Guggenheimen inposaketa honekin artearen mundua zalantzan geratzen da. Egileek aurrerapausu izugarria izan dela diote. Baina arte mailan? Honen inguruan batzarrak izan gabe, zuzenki inplikaturik agertzen diren arte munduaren inguruko herritarrekin eztabaidatu gabe, ezin liteke esan hotz-hotzean aurrerapausua izan denik.

Gaur egun artearen inguruko mugimendu asko “moda” bihurtzen ari dira, negozio iturri handi bat. Eta Guggenheim bezalako proiektuekin hori bultzatu nahi dutela dirudi. Beste hainbat eztabaida puntu ere hor daude oraindik argitu gabe; Euskal artea non geratuko da Guggenheim-en ondoan? Eta oraindik loratzen ari diren mugimenduak? Hauek ere izango al dute zor zaien garrantzia?

Oraingoz proiektu honek eragingo dituen benetako emaitzak ez dira garbi ikusten, geroak esango du. Baina argi dago honelako pauso garrantzitsu bat ematerakoan, proiektua besterik gabe onartu duten “egile”ek, gai honen inguruan zuzenki erlazionatuta ageri direnekin komunikazio zuzena izatea komenigarria izango zela.

Kirol elkarteak baino zerbaite gehiago

Ba al dakizue non aurki ditzakezuen Kontxako bi bandera? Aginaga Kirol elkartera joan besterik ez duzue. Orain dela 33 urte inguru sortu zen soziedadean sartu eta parez pare topatuko dituzu 1957an eta 1960an Aginagako trainerak lortu zituen Kontxako bi altxorak. Garai batean hainbat eta hainbat estropada irabazi zituen trainera, trainerila eta bateletan Aginaga kirol elkarteak.

Kirol elkarteak bada ere, soziedade arrunt bat da Aginaga kirol elkarteak. Larunbat eta igandeetan, hamaiketako, bazkari eta afari garaiak sakratuak dira bertan. 1955. urtean sortu zenetik gorabehera batzuk izan dira, bai, baina oraindik ere 80 bazkidezik gora daude bertan.

Benito Aranburu izan zen Aginaga Kirol Elkartearen lehen lehendakaria. Orain dela 33 urte politikak sortzen zuen giro nahasia ahaztu eta Aginagarren topaleku izan zedin elkarte bat sortzea erabaki zuten. Benitoren esanetan, *"Garai hartan elkarte bat sortzea ez zen batere erraza. Donostian, arraun munduko gizon garrantzitsu batek elkarteak sortzeko eman behar ziren pausoak zeintzuk ziren erakutsi zizkigun. Ondoren, denon artean, Errasti zaharrarena zen etxe azpian gero elkartearen egoitza izan den lokala moldatu genuen"*.



Hasieran Aginaga kirol elkarteak arrakasta handia izan zuen aginagarren artean. 130 bazkide ziren elkarteak eratu zenean. Gero, ordea, askok alde egin omen zuten. *"Elkarteak sortu zenean Aginagar gehienak eta kanpoko batzuk bazkide egin ziren, baina bi urteren buruan bazkide kopurua asko jeitsi zen, gainbehera handia izan zen hura"*. Ondoren, berriz ere bazkideak sartzen joan eta 80 bazkideko kopuruan ibili izan dira.

Izenak dioten moduan kirolarekin erabat lotuta egon izan da urteetan zehar Aginaga kirol elkarteak. *"Elkarteak sortzerakoan arraun talde moduan funtzionatzen genuen. Arraun federazioari diru kopuru bat ordaindu eta trainera, trainerila eta bateletan ibiltzen zen elkarteak 60 eta 70. hamarkadetan"*. Horrez gain, sokatiran

eta futbolekin ere hainbat eta hainbat talde ibiliak dira elkartearen izenean.

Momentu honetan, elkarteak 80 bazkide daude gutxigorabehera, eta zaharrak, edo adinekoak omen dira gehienak. *"Gazteei, elkarteak sartzea asko kostatzen zaie. Azken urteetan ere berdina gertatu da. Aldian behin, banaka-banaka sartzen dira. Hala ere, azken aldi honetan batzuk sartu dira eta, tira, aurrera doa elkarteak"*.

Aginaga kirol elkartearen emakumeek sartzeko oztoporik ez zaie jartzen. Ezin daitezke bazkide izan baina sartzeko eskubidea badute. Eta sukaldean lana egin? Lehen debeatuta egon zen, baina orain, andrea gizonari sukaldean laguntzen noiznahi ikusi omen daiteke.

Josu Aranberri

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. Orbegoza



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
 LASARTE-ORIA
 Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
 USURBIL
 Tel.: 36 37 67

Alzheimerra: memoria galtze progresiboa

Alzheimer zahartzaroa-arekin lotuta dagoen gaixotasuna da. 65-75 urte inguruko adinekoek sufritzen dute gero eta gehiago zabaltzen ari den gaixotasuna. Ignacio Mendiguren medikuak gai honen inguruko arlo desberdina landu zituen joan den martxoaren 6an Udarregi zaharrean Guraso Eskolak antolatuta eman zuen hitzaldian.

Azken urteetan, gero eta gehiago, hedatzen ari den gaixotasuna da alzheimerra. Lehen, honelako kasuak gutxi izaten ziren, hobeto esanda, alzheimerra bere osotasunean gutxitan garatzen zen. Izan ere, lehen, gaixotasuna gartu baino lehen hil egiten ziren. Orain, ordea, bizi itxaropena haundiagoa denean gaixotasun progresibo hau duten kasuak gero eta gehiago dira.

Zer da alzheimerra? 65-75 urte bitartean ematen den gaixotasuna da. Adin horretako zenbait pertsona memoria galtzen, bere eguneroko jarraia eta ohiturak erabat aldatzen hasten da. **Ignacio Mendiguren** medikuaren esanetan hasiera oso arraroa izaten da. "Egun batetik bestera bere betiko jarrerak aldatzen hasten da. Urteetan zehar erosketak egitera joan izan den denda ahaztu eta inoiz joan ez den beste batera doa, musean jokatzerako joateari uzten dio, gauzak ahazten



hasten da... nolabaiteko maiztasun batean honelako gauzak errepikatzen ditu alzheimerra duen gaixoak bere hasieretan".

Gaixotasunaren hasieratik bukaerara 2 sintoma agertzen dira: alde batetik, memoria galtzen da. Pixkanaka-pixkanaka gaixoa memoria galduz doa, orain dela urte asko pasatakoaz gogoratzen dira, baina ez atzo zer egin zuten. Beste aldetik, gaixoarengan denbora eta espazioaren aldaketa dago. Hasieran toki ezezagunetan galtzen hasten da, gero oso ondo ezagutzen dituen lekuetan ere bidea ezin aurkitu ibiltzen dira.


Alzheimer ezin sendatu

Alzheimer ezin da sendatu. Alzheimer duen gaixoak pixkanaka-pixkanaka okerrera egiten du, egoera jasanezinerira iritsi arte. "Denborarekin memoria osoa galtzen dute. Jendea ez dute ezagutzen,

gauzak zertarako diren ez dakite, beraien irudia nolako den ere ahaztu egiten zaie - dio medikuak- Honekin batera, mugimendua galtzen joaten dira: ez dira gauza jatzeko, jateko, komunera joateko ..."

Alzheimer duen gaixoa zaintzea oso gogorra izaten da. Pazientzia haundia behar da eta horretarako laguntza eskatzea izaten da onena. Izan ere, nola zaindu Alzheimer duen gaixoa? **Ignacio Mendiguren** arabera gaixoari gauzak ez zaizkio erakutsi behar, erraztu egin behar zaizkio. "Behin memoria galtzean, zenbait mugimendu ahaztean horiek ez ditu errekuperatuko. Oraindik mantentzen dituenak mantentzea da onena". Horretarako gauzak erraztu egin behar zaizkie: galderak ez egin, eguna beti modu berdinean antolatu, gauzak leku berean utzi.

Josu Aranberri



URTINEA LORATEGIA

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

Bota bertsoa

Behin batez Puela zaharrea, trago luze baten ondoren, honela mintzatu omen zizaion sagardoa Puelako artzaiari:

Sagarrondoaren emaitz
ez naiz ni inoren bekaitz
lur maite hontan sortutakoa
aspaldiko garaiz.
zuen artera bilduz maiz
beti ere bihotz alaiz
nik ere harro aitort dezaket
usurbildarra naiz.

Umoretsu zabilzate
itxurak hala dirade
paregabeko ikuskizuna
zer esan nezake?
Horrenbeste borondate
maitagarriak zerate
egia da bai naukazuela
herriko alkate

Penak ditzaket arindu
zeru beltz denak urdinu
laguntzat hartzen nauten guztiak
umorez berdindu.
Ez dadila inor mindu
baina hara nik agindu:
egunen batez ni falta banaiz
zuenak egin du!

Antton Aranburu

Erremedioen txokoa



KOLITISARENTZAT

Behar duguna:

*Egur-belarra

(*Lythrum Salicaria*)

Ontzi bat jarriko dugu sutan baso bat urarekin. Gero, 100 gramo *egur-belar* botako dugu uretara eta irakin arte utziko dugu. Bost minutu hozten utzi eta gero infusio hau egunean zehar nahi adina aldiz edan ahal izango dugu.

Lehiaketa



Zenbat zubik zeharkatzen dute Oria ibaia Usurbilen?

Asmatzaileen artean **Tragoxkan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

7.aleko iturri, eskultura hura Bizkarreko parkean dago. **Elias Sagardiak** asmatu du erantzuna eta Egioletan afaltzeko aukera izango du. Zorionak!



Haritz Harreguy Zumeta
jaketxean saria jasotzen



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL



Ekaitz

Bideo eta Arg

Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun



Usurbilgo Saskibaloitza taldea bere lehenengo garaipena lortzen saiatuko da datozen bi jardunaldietan. Martxoaren 15ean Martiko Amigosen aurka jokatuko dute Oiaro kiroldegian goizeko 10.00etan. Martxoaren 22an Oartzunen dute partidua Haurtzaro ikastolaren aurka

MARTXOAK 13 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Ondarre - Xabier Edaritegia** Pio Baroja kiroldegian.

MARTXOAK 14 larunbata

- Bigarren nazionaleko **eskubaloitza partidua** (2N): **Arrasate- Usurbil K.E**
- **Eskubaloitza partidua** kadete mailan (m): **Usurbil K.E- Loyola**. Oiaro kiroldegian arratsaldeko 16.30etan
- **Eskubaloitza partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil K.E- Loyola**. Oiaro kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Gazteak - Usurbil F.T.**
- **Futbol partidua** errejional mailan. Igoera fasea. (m): **Intxaurren - Usurbil F.T.** Donostian.

- **Futbol partidua** errejional mailan (n): **Usurbil F.T. - Allerru**. Harane zelaian.

- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Martutene - Usurbil F.T.**

MARTXOAK 15 igandea

- **Saskibaloitza partidua** (m): **Usurbil S.T - Martiko Amigos**. Oiaro kiroldegian 10.00etan hasita.

MARTXOAK 20 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Axular** Oiaro kiroldegian, 20.45etan.

MARTXOAK 21 larunbata

- Bigarren nazionaleko **eskubaloitza partidua** (2N): **Usurbil K.E- E.H.U.** Oiaro kiroldegian arratsaldeko 18.00etan

- **Eskubaloitza partidua** jubenil mailan (m): **Basauri- Usurbil K.E.** Basauriko kiroldegian

- **Eskubaloitza partidua** kadete mailan (m): **Basauri- Usurbil K.E.** Basauriko kiroldegian

- **Futbol partidua** errejional mailan (m): **Usurbil F.T. - Gwendoline**. Harane futbol zelaian.

- **Futbol partidua** errejional mailan (n): **Alde Zaharra - Usurbil F.T.** Donostian.

- **Saskibaloitza partidua** (m): **Haurtzaro ikastola - Usurbil S.T** - Oartzungo Elorsoro kiroldegian arratsaldeko 19.30etan.

MARTXOAK 22 igandea

- **Futbol partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil F.T. - San Patricio**.



ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko dastapena

Txoko alde, Tel.: 36 27 13 - Ogi eta kafea

3.475 pta. (pertsonako)



Egioleta baserria z/g

Egioleta sagardotegia

Sagardotegiko menua bazkari eta afarietan;

Etxeko sagardoa dastatzeko aukera!

Tel.: 36 63 27

MARTXOAK 13 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 14 larunbata

- **Su Ta Gar** talde eibartarrak eta **Kashbad** talde Oretetarrak kontzertua eskainiko dute herriko frontoian **gaueko 22.30etan** hasita. Usurbilgo AEK-k antolatutako ekitaldirako sarrera 1000 pezetakoa izango da.

MARTXOAK 15 igandea

- Andatza K.K.E-k **mendi irteera** antolatu du. **Xoxoka-Efende-Leuneke-Arano**, 4 orduko ibilaldia izango da. Ondoren babarrun jana. 1300 pezeta. Irteera goizeko 8.00etan.

MARTXOAK 16 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

MARTXOAK 20 ostirala

- **Senideak-en manifestazioa.** Arratsaldeko 20.00etan.

MARTXOAK 22 igandea

- **Etzakit** taldearekin dantzaldia herriko frontoian. **18.30etan.**

MARTXOAK 23 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. 20.00etan, errotondan.

MARTXOAK 25 asteazkena

- **Itziar Zubizarreta ipuin kontalariak** bere ipuinak kontatuko ditu udal liburutegian arratsaldeko **18.00etan** hasita. 5-8 urte bitarteko haurrentzako ipuinak

MARTXOAK 26 osteguna

- **Oihulari klown** antzerki taldeak **"Dena kontrolpean"** antzezlanaren aurkeztuko du **Txurru tabernan 21.30etan.**

OHARRAK

- ✓ **Etxea alokatu nahi nuke Kaleberri inguruan.** Deitu telefono honetara: 37 14 95
- ✓ **Saloun pisu bat dut salgai.** 104 metro karratukoa, altzariz hornituta, hondartzatik 100 metro ingurura. Deitu **362865 telefonora** gaueko 21.00etatik aurrera.

LANPOSTUAK

- ✉ **Billabonako udalak euskarra dinamizatzailerik** bat behar du. Eskerak aurkezteko epea: martxoak 18. Informazio gehiago GAOko 37. ean.
- ✉ **Ibarrako udalak peoi lurperatzaile bat** behar du. Eskerak aurkezteko epea: martxoak 20. Informazio gehiago GAOko 39. ean.
- ✉ Arrasateko udaleko funtzionarioen plantilan jakinarazle plaza bat dago hutsik. Eskerak aurkezteko epea: martxoak 26.

Martxoaren 14an Noaua! Elkartearen egoitzan **herriko talde desberdinek hitzarmena** sinatuko dute **Noaua!** Elkartearekin eguerdiko 12.00etan.



Martxoaren 28an Noaua! Kultur Elkarteak urteroko batzar orokorra egingo du udaletxeko pleno aretoan goizeko **10.00etan** lehen deialdia 10.30etan bigarrena hasita.



BAZKARIDE TXARTEEK

5000 PEZETAKO URTEKO OSGORAKO

Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Hertia: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____



Kalezar, Tlf: 36 22 28
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

saizar



Aginaga, Tlf: 37 26 91
Igande gauetan itxita.

URDAIRA



Aginaga, Tlf: 36 67 10
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

aginaga



Zubieta, Tlf: 36 20 49
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

araeta



Trokolde, Tlf: 37 16 40
Sagardotegi eta etxeko menua egunero.

illunbe



Zubieta, Tlf: 36 12 29
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita

iruin

